

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Emakumeen aurkako indarkeria ekiditea dugu helburu “**Oihu**” izendatu berri dugun proiektuarekin. Zoritxarrez, zerbitzu honen sorrera beharrezkoa dela iruditzen zaigu, izan ere, gaur egun indarkeria matxista jasaten duten emakumeen kopurua ez da batere txikia. Horrela, edoizenen eskura dagoen **telefono zenbaki** bat sortuko dugu: “888”. Zenbaki honetara, zein ordu den kontuan hartu gabe, kalean dagoen eta beldurra edo segurtasun eza sentitzen duen emakume orok deitu dezake.



Elkarrizketa bat mantendu besterik nahi ez bada, berriketan arituko gara erabiltzaile seguruago sentitu dadin bidean zehar. Baina norbait atzetik duela ziur badago, **kode** baten bitartez jakinarazteko aukera izango du. Hau edozein koloreren izena izango da, eta hura esan bezain laister ertzaintzarekin jarriko gara harremanetan. Hauek deitzailea non dagoen jakingo dute satelitearen bidez, hau da, norbaitek deitzen duen momentuan guk bezeroaren telefono zenbakia ertzaintzari bidaliko diogu; kodea erabiliz gero ertzaintzak esku hartuko du egoeran, izan ere, bitartekari batzuk izango gara.

Idea hau oinarritzat duten beste zerbitzu batzuk badirela badakigu, baina **ez dago gurea bezalakorik**. Ingurunea aztertu eta ikusi dugu zerbitzu honen antzeko bat eskaintzen dela “app” formatuan; ordea, aplikazio bat behar izateak erabiltzaile kopuruak murrizten ditu edonork ez baitu “smartphone” bat izateko aukera. Arrisku baten aurrean, telefono zenbaki motz bat izanik, gure zerbitzuaren erabilera erosogoa eta azkarragoa egiten da; gainera, estaldurarik ez dagoen tokietan ere erabilgarri izango da; hori bai, inolako kosturik gabe.



Zerbitzuaren **izena**, “Oihu”, ez da ausaz aukeratu. Oihu mota asko daude, baina gurea zehazki, laguntza eske dabilenaren garrasiarena da, babesa eskatu nahi duen emakumeari erreferentzia egiten diona. “**888**” zenbakiak ere badu bere zergatia: haren kokapena mugikorreko teklatuan oso eroso egiteaz gain, garrantzia du sinbolismo aldetik, hau da, martxoak 8ri egiten dio erreferentzia, emakumeen nazioarteko egunari. Guk sortutako **logoa** hau ere, ez da atzean geldituko, emakumearen ikurra izango da oinarria eta barnean telefono baten irudi abstraktua kokatuko da, non feminismoaren kolore den moreak hartuko duen indarra.

Gaur egungo enpresa guztien lehentasuna dirua irabaztea den bitartean, gurearena ez da hala izango: ikasle talde bat izanik, nahikoa dugu gutxieneko diru sarrerak lortzearekin. Beste zerbitzu batzuek ez bezala, gure zerbitzuaren erabilerak behera egitea **lorpen** izugarritzat hartuko genuke, izan ere, indarkeria matxistaren gutxitze baten adierazgarri litzateke.

Zerbitzuaren **kalitatea** ezinhobea izango da, profesionaltasuna guztiaren gainetik baitago honelako helburu bat lortzeko; hots, pertsonekin lan egiten dugu, eta ez edozein pertsona motarekin, baizik eta arriskuan sentitzen diren emakume euskaldunekin. Horregatik, “Oihu” guztiz fidagarria izatea ezinbesteko urratsa da: langile guztiak fidagarriak izateaz arduratuko gara eta gutxienezko formakuntza batekin (aurretik eskeiniko dieguna) arituko dira lanean. Gure bezeroei laguntza bat eskaintzea dugu helburu bitartekari bezela, baina ez hori bakarrik, bizi garen gizartearen egoera hobetzeko ere bagaude azken finean.